

ALEGAZIOAK, GIZA BALIABIDEEN BERRESLEIPENAREN ZIRRIBORROARI

Oinarritzko hatsarreak. ELAren ustez Osakidetzak epe laburrera zerbitzuak pribatizatzen eta berrantolatzen jarraituko du, dirua aurrezteko asmo bakarra izanik, eta zerbitzuaren kalitatearen kaltetan. Horrelakoa izan da planteamendua Laborategietako Plan Gidarian, Santiagoko Garbitegian eta ESletan. ELAk ez dio utzi nahi Osakidetzari horrelako erabakiak alde bakarretik hartzen, gero erabakien ondorioak denen artean partekatu behar izateko.

Osakidetzak aurkeztu duen zirriborroa ikusita, badirudi normaltzat jotzen dutela Administrazioak erabakiak hartzea, eta erabakiek sortzen dituzten arazoak bideratzen sindikatuak lagundu behar izatea, mobilizazioak atertuz, eta pertsonalaren zati bati irtenbidea emanez —nahitaezko mugikortasuna hautatzen dutenak—, eta beste zati bat alde batera utziz —kalean amaituko duten behin-behineko langileak—. ELAk ez du parte hartuko dinamika horretan.

- **Aurretiaz:** Sindikatuekin testu honi buruzko adostasunik egon ez den bitartean abiarazitako nahitaezko mugikortasuneko prozesuak geldiarazteko eskatzen du ELAk. Aurrera eramaten ari den praktikan testua negoziatzeko borondatea neurtuko dugu.
- **Lehenengo artikulua.** Giza baliabideak berresleitzea dakarren edozein egoeratan, ezer gauzatu baino lehen, sektore-mahaian aurkeztu, zuritu, negoziatu eta adostu egin behar da.
- **Bigarren artikulua.** Nahitaezko mugikortasuntzat hartuko da edozein aldaketa unitatez/zerbitzuz, eginkizunez edo lantokiz, Osakidetzaren antolakuntza-erabaki baten ondoriozkoa bada.
- **Hirugarren artikulua.** Nahitaezko Mugikortasuneko prozesuen eraginpeko

pertsonek lehenago zituzten lan-baldintzak, behintzat, mantentzeko eskubidea izango dute.

- **Laugarren artikulua.** Nahitaezko mugikortasuna gauzatu baino lehen, eraginpekoei Behin betiko Mugikortasun Horizontaleko prozesu batean parte hartzea eskainiko zaie.
- **Merezimenduen baremoa:** kategoria berean lan egindako hilabete bakoitzeko, 0,20 barematzen bada, Osakidetzaren barruko beste kategoria batean lan egindako denbora gutxiago barematu beharko litzateke (0,10 adibidez).
- Kalte-ordainek ez dute gehieneko eperik izango, eta kalte-ordaina sorrarazi duten arrazoiak desagertu arte iraungo dute (adibidez, diru-kalteak edo postu berrira joateko denbora).
- Berresleipenak, ALDI BATERAKO izan arren, kalte-ordaina sorraraziko du.
- Giza baliabideen berresleitzearen ondorioz *in itinere* gehitzen den denbora konpentsatu behar da lanaldiaren kontura, lan egindako denboratzat hartuko baita.
- Nahitaezko Mugikortasuneko prozesuan kaltetutako pertsonari lekualdatze-lehiaketetan lehentasuna emateko eskatzen dugu, harik eta jatorriko lanpostuaren antzeko postu bat eskuratzen duen arte.
- Epe barruan eta behar bezala eskaturiko oporrak, lizentziak eta baimenak errespetatu behar dira, nahiz eta zerbitzu horretara langile berriak berresleitu. Osakidetzak behar diren giza baliabideak eta bitarteko materialak jarri beharko ditu, zerbitzuko langileek berresleipenaren ondorioak jasan ez ditzaten beren baimendutako aldi libreetan.
- **4 puntua:** kentzeko eskatzen dugu, eta horren ordez beste lerrokada hau ipini: Giza baliabideen/nahitaezko mugikortasunaren eraginpeko langileei lanpostu bat bermatuko zaie, postu funtzional berarekin, lansariak eta lan-baldintzak errespetatuz (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 81.2 artikulua betez).